

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Entzule txikienentzako kanta landu eta borobilduak



Lo lo.
Kanta tikiak.
Hirusta.
Iraupena: 30'30".
11,50 euro.

1999AN JOSUNE ETA XABI LOPEZ anai-arrebak, Anutxi Lazkanotegirekin, umeen hezkuntza lantzeko asmotan, kanta konposatzen hasi ziren. Gurasoei banatutako maketek oso harrera ona jaso, eta estudio baten kanta grabatzen saiatu ziren. Hainbat ate jo zituzten eta bat zabaldu egin zen: Mikel Errazkinena. Errazkinek izugarritzko ilusioa eta gogoia jarri zuen proiektuan, eta gainera beti ahalegindu zen kalitate

handiko lanak, zainduak, egiten. *Lo lo* lana bildumako laugarrena eta orain arteko azkena da; Errazkin iaz hil zen. Zortzi kanta batu dituzte, guztiak sehaskarako modukoak; eta horien artean, badira abesti ezagunak, ezezagunagoak eta baita Lourdes Zubeldiak idatzitako pieza berri bat ere. Gehienak xuxurlariak diren arren, bada esku-soinua protagonista duen pieza alaiago edo biziagorik ere.

Xabi Lopez

«Musikan beti dago asko egiteko, eta hori da ideia berriak garatzeko pizgarri nagusia»

Laugarren lan honek proiektuari bukaera eman dio. Helburua lortuta dago edo oraindik bada umeen esparruan egitekorik?

Kanta Tikiak proiektuko lan bakoitzak umeentzako musikari aportazio berriak egin dizkio; kantu berriak direla, zaharrak berreskuratu eta baita moldaketak ere. Egindako lanarekin oso pozik gaude. Musikan, beste edozein espresio moduan, beti dago asko egiteko; eta hobe horrela, hori da-eta ideia berriak garatzeko pizgarri nagusia. Handia izan da ikerkuntza lana. Nondik atera dituzue kanta?

Azken bi diskoetan Mikel Errazkinek hartu zuen lan hori. Interneteko kantutegi bildumatan ikertzen ibili zen. Lan luze eta nekagarria da: kantu askoren melodia entzun, lehen aukeraketa egin, oinarritzko armonizazioa prestatu, abesti zaharren hitzak aurkitu...

Laugarren disko hau sinpleagoa da moldaketa eta tratae-

ran. Mikel Errazkin sinpletasunaren bila ibili zen?

Bai. Mikelek lehen Kanta Tikiak-en ideia berreskuratu zuen: ahotsa, gitarra akustikoa, teklatura

eta esku-soinua. Hala, zirkulua itxi egin zuen. Baita diskoaren gaiari dagokionez ere, sehaska kantuak dira-eta.

Badirudi gaur egungo konposatzaile eta ekoizle asko ez direla musika-zale txikienez eta herri kantutegiez gogoratzen. Mikelek, aldiz, hainbat arlo lan zituen batera...

Bai, hala da. Bai Kanta Tikiak egitasmoarekin eta baita Lantz folk taldearekin herri kantutegia arakatzen ibili zen kantu zaharrak berreskuratzeko. Are gehiago, diskoetxe propioa izateak mota oso desberdineko taldeak ekoizteko aukera eman zion.

Mikelen musika biografia kontuan hartuta, zer da beti gogoan izango duzuen?

Bere biografia itzela da eta tartean pop-a, folka, umeentzako musika, heavya... landu zituen. Beti gogoan izango duguna da sortzeko zeukan ilusioa, berritzeko gaitasuna eta lan guztietan buru-belarri jartzea, hain tematia izatea. ■



HIRUSTA